

FONTES LINGVÆ VASCONVM

stvdia et
docvmenta



SEPARATA

Año XLIV • Número 114 • Enero-Junio • 2012

Etimologiak ate-joka: *din-don...*
(*jo* eta *josi*; *eman* eta *iramo(n)*;
jin eta *jainko*)

BORJA ARIZTIMUÑO



Gobierno
de Navarra

Etimologiak ate-joka: *din-don...* (*jo* eta *josi*; *eman* eta *iramo(n)*; *jin* eta *jainko*)

BORJA ARIZTIMUÑO*

SARRERA**

Joseba Lakarraren lehen lanetatik (1995, 1998, 2004) aitzineuskara zahar-
ren erro kanonikoa silaba bakarrekoa zelako frogak eta argudioak ugarituz
joan dira, halakoak baino luzeagoak bi bide zehatzez azaltzeko beharra age-
rian utziz: edo maileguak dira, edo konposatu-eratorriak. Hala, ez dira gutxi
erro monosilabikoetatik berreraikitako aditzak eta hitz-familiak, oro har
CVC bati *e-*, **da-* (eta > *la-*) aurrizkiak edo horien konbinazio bat (**e-da-*,
**e-la-* > *e-ra-*, **e-da-la-* > **e-da-ra-*)¹ gehituz (*-i*, *-o* eta *-gi* atzizkiez gain).
Familia horietako bat da Lakarra (2006b) lanean agertzen dena, **din* eta ha-
ren ondorengo **lin* erroena, hain zuzen (*jin*, *jo*, *jaio*, *herio*, *jario*)².

1. NORA *JO*, *JIN* GABE

Artikulu hartan (2006b) Joseba Lakarrak berak arazo formal batzuk ai-
tortzen ditu *jin*-etik edo **e-din*-etik *jo* ateratzeko. Aldaketa ezagun batzuen
kronologia erlatiboa nolakoa den, **e-din-o* bezalako forma batetik **jiho* edo

* UPV/EHU, Gasteiz.

** Eskerrak eman nahi dizkiot Joseba Lakarrari, artikulu honen osaketan funtsezko gertatu diren
hizketaldi mamitsuengatik, bai halaber Ricardo Gomezi, lanaren behin-behineko bertsio bati egindako
iruzkin eta zuzenketengatik.

Lan hau Eusko Jaurlaritzaren «Ikertzaileak prestatzeko eta hobetzeko laguntzen programetako»
doktoretza-aurreko bekaren laguntzaz egin da, eta Eusko Jaurlaritzako «Historia de la lengua vasca y
lingüística histórico-comparada» (GIC07/89-IT-473-07) Ikerketa Talde Iraunkorraren eta UPV/EHUko
UFI11/14 Prestakuntza eta Ikerketa Unitatearen barnean burutu da.

¹ Morfemok berreraiki beharraz eta haien funtzioaz ik. Lakarra 2005, 2006a, 2006b, 2008a eta 2011
(azken horretan bereziki §6.1. eta §6.2.).

² Aurreragoko lanetan ugaldua (Lakarra, 2008a: 458).

**(h)eo* atera «behar» zatekeen, eta horregatik bi bilakaera gehiago proposatu behar izan ditu (*op. cit.*: 593). Lehenik, **jiho* > *jo* bihurtzeko oztopoak saihestearren, -*n* : -*o* «ekuazioa» ematen du (beharbada *igan* : *igo(n)*, *jasan* : *jaso* eta abar gogoan dituela, nahiz eta berez **e-din-o* proto-formatik datorrela proposatzen duen, hots, **edin* ezagunaren forma datibodun(?) batetik)³, horrela *jin* → **jio* > *jo* errazago lortuz. Beste bilakaera *jin*-erako ere behar duena da, hasierako *j*- azaltzeko hain zuzen: bere ustez, **e(d)in* > **iin* > **in* gertatuko zen eta, ondoren, hasierako hotsaren *fortitio* baten bidez *jin* bihurtuko⁴. Hortaz, **e-din* > *(*i*)*in* > *jin* : **jio* > *jo*⁵.

Beste alde batetik, esanahiaren eta erregimenaren aferra dugu. Lakarra *jo*-ren funtsezko mugimendu zentzuaz baliatzen da hura **din* erroarekin lotzeko, eta ez du arrazoirik falta (ik. beherago *OEHN* *jo*-rentzako dakartzan adierak). Dena den, *jo*-ren izaera iragankorraren aurrean, badirudi **din* iragangaitza izan dela beti, haren eratorri *jin* bezalaxe, salbu eta 'ekarri' zentzuan erabiltzen denean⁶ (*cf.* *joan* 'eraman', hau ere ekialdeko hizkeretan). *Jo*-k, aldiz, beti behar du laguntzailer iragankorra, baita mugimenduzko adiera duenean ere.

Hortaz, lehenengo testuetarik *jo*-k hainbat adiera erakusten dizkigu, eta *OEHN* ageri diren zaharrenak –XVI–XVII. mendeetako lekukotasunetakoak– honela sailka genitzake, logika apur batekin eta inoren sena gehiegi bortxatu gabe:

- a) *Golpear, herir.*
 - a. *Pegar; dar, soplar la tormenta, el viento, el sol.*
- b) *Fornicar.*
- c) *Dirigirse (a), llegar (a).*
 - a. *Vararse, chocar (cfr. golpear).*
- d) *Tocar (un instrumento), tañer (cfr. golpear).*
 - a. *Dar la hora.*
 - i. *Cantar (el gallo).*
 - b. *Sonar (un sonido; cfr. soplar la tormenta...).*

2. JO-REN JATORRIA

Argi dago *jo*-k mugimendu ideiarekin bat adierazten duela, baina, esango nuke bidea ez ezik (edo bainoago) jomuga ere kontuan hartzen duela. Zein dugu, bada, *lekutasun* ideiarekin loturik egon daitekeen erroa? Gogoan izan-

³ Dena den, bilakaera berezia begitantzen zait kasu honetan, *n* : *o* «ekuazioa» -*an* : -*o(n)* moduko alternantziatarako proposatu izan baita; aldiz, gainerako (*i*)*n* : (*i*)*o* guztiak **in* : **in-o* bezala azaldu dira, hots, **e-din-o* > *jo* behar luke, honek dakartzan aipaturiko zailtasunekin.

⁴ Edo **iin* > *jin* lehendabiziko bokala erdi-kontsonante bihurtuz. Dena den, bilakaera horiek ere (testuinguru horretan bederen) ez ditut beste etimologiatan ikusi, nahiz eta azken hori egiantzekoago izan daitekeen.

⁵ Egia da, ordea, **eradino* > *eraio* bilakatzeari ezin dakiokela eragozpen formal handirik ezarri (**h₄* > *ø* bilakaeraz). Hala ere, bi azalpen posible ikusten ditut: (1) *jo* eta *eraio* ez daude etimologikoki lotuta, lehena, beherago azalduko den moduan, **don* errotikoa izanik, eta bigarrena **din*-etikoa, jatorrizko hurbiltasun semantikoaren zein geroagoko antzekotasun fonologikoaren eraginez bata (*eraio*) bestearen (*jo*) kausatibotzat hartu dela; edo (2) *eraio* [j] *ø*-tik heldu da zuzenean, hots, ez haren proto-formatik, horrela azalduz aditz horren hedadura dialektal murrizta (ik. 15. oin-oh.).

⁶ *OEHN* adibide bakar eta berankorra (XIX. mendekoa), Luzaideko arotz baten agerietan: «11. (Trans.). Traer. * *Lopek asteartian yina. Lopek asteartian yina.* HerVal 250». Egia da, bestalde, **e-ra-din* > *ediren* iragankorra dela, eta izan bide dela testuak ditugunetik bederen, baina baliteke beste hainbat aditzek jasandako NOR(-NORI) > NOR(-NORI)-NORK aldaketa jasan izana (*cf.*, esaterako, *eskatu*, *behatu*, eta Lazarragaren *bilatu*!); gainera, oroit **e-da-ra-din* > *jarrai(n/ki)* ere iragangaitza (izan) dela.

da hasieran **d-* bat dela ziurrena, gero (**e-dV >*) *jV-* bat izateko, amaierako hotsak erraz xamar galtzeko modukoa behar duela (cfr. *eho < *e-non* eta *igon/iramon vs. igol/iramo*) eta, datiboarekin lotu ezean, *-o* bokala azaldu behar dela, **don* izan liteke erantzun ekonomikoena, hain zuzen *-doi* (eta *-(d)oki, -toki (> toki ?)*) atzizkiarekin lotua; alegia, *-doi/-duil/-di* ez zatekeen hasiera batean ugaritasun atzizkia, lokatibozkoa baizik, eta gero *X-en tokia > X ugari (den tokia)* aldaketa semantikoa jasango zukeen⁷. Lakarrak *idoki, ja-gon (< jaon < *e-da-don)* eta *errun (< *e-ra-don)* aditzak, eta *lohi (< *don-i)*, *hodei (< *e-don-i)*, *(h)erro (< *e-ra-don)*, *arrain, arrano (< *arran- < ... < *e-da-ra-don)* izenak berreraiki ditu oinarri honen gainean.

Honenbestez, Joseba Lakarrak **din* erroarekin egin bezala, **don*-en paradigmako hutsuneak betetzeko proposamena dakart hona, izan ere *e-* aurritzki hutsezko aditza falta zuen erro hark, **e-da-don* eta **e-ra-don*-en ondoan: nire proposamena, beraz, *jo < *e-don* berreraikitzea da.

Erroaren jatorrizko adierari dagokionez, uste dut '*collocāre, pōnere*' izan zitekeela, zerbait nonbait jartzeak dakarren mugimenduekin. Hortik mugimendu zein elkartze (gehi topatze edo kolpatze) adierak eta haien eratorriak.

Arazo formal bakarra bukaerako *-n* hori litzateke, baina, badira beste adibide paralelo batzuk, dagoeneko aipatu ditugunak: alde batetik, orokorra den *eho < *e-non* (Lakarra, 2006b: 596, 59. oin-oh.) eta, bestetik, hizkeraren araberrako *igan/-on* : *igo* moduko txandakatzak ditugu –orobat *iramon* (Land.) : *iramo* (Laz.) eta *eraman* : *eramo* (ik. beherago §3.3. eta 11. oin-oh.); hots, agian **edon > *jon*, hortik → *jaite / joite* aditz-izena, eta ondoren, berrinterpretazio baten bidez, → *jo*.

3. JO-REN FAMILIA

Orain arte azalduko kontu formal eta semantikoak argi geratu direla-koan, jarraian **don* erroatik sortuak diruditen beste zenbait hitz azalduko ditut (proposamen etimologiko berriak gehienak, Joseba Lakarrak lehenago emanak gainerakoak), *jo*-rekiko harremana justifika daitekeen ikusi nahiz, kontuan izanik esanahi aldaketak izan ziratekeela tartean.

3.1. *josi* (eta *jauntzi*?)

Lehenaren jatorria (Lakarrak 2005eko lanean ematen duen **e-dos-i* etimologiaren kontra) **e-don-tz-i* litzateke⁸, eta hasieran harreman semantikoa hain garbi ikusten ez den arren, *josi*-tik 'zulatu, zeharkatu' eta 'itsatsi, juntatu, (ondoan) ipini' adieren abstrakzioa egin bageneza, erlazio hura argiago gera litekeelakoan nago. Gainera, bitxikeria moduan, aztertutik *jo* bera ere zentzu sexualarekin 'itsatsi' edo 'zulatu, zeharkatu' adieretara gerturatzen delarik, aipa daiteke (hizkuntza gehiagotan zer gertatzen den ikustekoa litzateke) gaztelaniaz *pegar* aditzak berak dituen bi adierak ('kolpatu' eta 'itsatsi'), bai eta koreeraz '(larrua) jo' eta 'josi' ekintzak aditz berberaz adieraz daitezkeela (타다/ta.da)⁹.

Bestetik, litekeen aukera gisa aurkezten dut **e-da-don-tz-i > ja(u)ntzil/jauntsi*, uste baitut semantikoki lotura handiagoa izan lezakeela *josi*-rekin (eta

⁷ Ik. Lakarra, 2005: 443-444 eta 25. oin-oh. antzeko fenomeno baterako, **ga > -k* pluraleko atzizkiarekin.

⁸ Joseba Lakarrak ahoz berretsia (eta ez, hortaz, Lakarra, 2006b: 584-ko **e-dos-i*).

⁹ Mila esker Won Suk Jung ikaskideari informazio horrengatik.

ez soilik modernoagoak diratekeen adierengatik, hots, lat. ‘(cōn)suere’ eta ‘in-duere’) ezen ez *jaun* (Lakarra, 2006a: 578, 2006b: 583) eta *jarauntsi*-rekin¹⁰.

3.2. (h)erro/errun

Gorago esan bezala, Lakarraren ustez, **e-ra-don* > (h)erro / errun izango genuke, nahiz eta gainerako -rr- guztiak (*jarraiki*, *arraultza*, *arrain*, *arrano*, etab.) **e-da-ra-* aurrizki multzoaz azaltzen dituen. Komunikazio pertsonalean adierazi dit jatorrizko esanahiak nolabait ‘colgar’ (errun) eta ‘colgado’ ((h)erro) izan zitezkeela; bada, oroit, ezinbestean, gorago (§2) **don* erroaz esandakoa eta lat. *collocāre* > gazt. *colgar* (eta bide jasotik *colocar*).

3.3. eman/-on eta iramo(n)

Lakarrak hasiera batean *jagon* < **e-da-gon* proposatu bazuen ere (2005: 432), azken artikuluetan **e-da-don* berreraiki nahiago duela adierazi du (2008b: 330, 87. oin-oh., 2009b: 581), haren ustez (ahozko komunikazioa) *egon* bezalako aditz «estatiko» eta zeharo iragangaitz batekin nekez ezkon litekeelako *jagon*-ek duen esanahi «aktiboa». Dena den, *eragon* ‘ari izan’ *egon*-ekin lotu behar bada, «estatikotasuna» ez bide da arrazoi nahikoa *jagon* < **e-da-gon* ukatzeko, areago pentsatzen badugu zerbait gorde edo zaintzeak ez dakarrela nahitaez mugimendu edo «aktibotasun» berezirik (ezpada *zain egotea* bera; cfr. *zaindu*). Gainera, balizko balentzia aldaketarako badukegu hor -da- aurrizki aplikatibozkoa. Hortaz, **e-da-gon* > *jagon* egiantzekotzat joko nuke, **e-da-don*-en gelaxka hutsik utziz, beste zerbaitetarako...

Eta bada aditz bat oraingoz azalpenik izan ez duena: *eman/-on*. Izan ere, ezin lotu *eraman*-ekin formaz (< **e-ra-o(h)an*; Mitxelena, 1977 [1961]: 119, 177), ez eta adieraz ere. Gainera, hor dugu Landucciorene eta Lazarragaren ia hapax den *iramo(n)*¹¹, erraz lot daitekeena euskalki bereko *emon*-ekin, behe-rago ikusiko dugun bezala.

Lehenik, *eman*-en adiera ‘zerbait beste norbaiten eskuetan ipini’ bezala ulerturik, **don* erroarekin lotzeko arazo larririk ez dagoela deritzot, hots, **e-don* ‘ipini’ → **e-da-don* ‘norbaiti ipini’, -da- aplikatiboaren bidez onuraduna-edo izan daitekeena gehituaz. Bilakaera *joan*-entzat ere behar den bokal metatesia (Lakarra, 2006b: §9) erabiliz azal daiteke, hau da: **e-da-don* > **edo-dan* > **eoan* > **ewan*¹² > **eban* > *eman*.

¹⁰ Ez zait ezkututzen, halere, itxuraz *jauntsi* : *jarauntsi* bikoteak erakusten duen harremanak eta *vestir* : *investir* erdal bikoteak iradokitzen dutena (Joseba Lakarrak ahoz ohartarazia).

¹¹ Honek ez du zerikusirik, jakina, ekialderago (hegoaldeko goi-nafarrerako hizkera batzuetan) dokumentatzen den *eramo*-rekin, zeina *erama(i)te*-ren berranalisitik sortu bide zen.

¹² **eoan* batetik **ewan*, eta ez **joan*, ateratzea justifikatu behar banu, esango nuke bi bilakaerak (*eo*- > *ew*- eta *eo*- > *jo*-) lehian direlarik lehenak irabaziko lukeela honelako triptongo batean, erroaren aurreko silaba kokagunerik ahulena izanik (**e-da-dón* > **e(d)ə(d)án* > **ewán*). Aldiz, **e-da-nón* > **edonán* > **eohán* > *jo(h)án* adibidean ez da hori gertatzen, baina bi arrazoi daude horretarako: alde batetik, metatesia hasierako hiatoa diptongatu ostean gauza zitekeen (**eahón* > **jahón* > *jo(h)án*), beraz *e* eta *o* ez ziratekeen elkarren ondoan inoiz gertatu; bestetik, triptongorik egon ez izanak ere (**e.o.han*) ez zion *VəV* > *VwV* bilakaerari lagunduko. Hainbat hizkeratako *fuan*, *fan* aldaerak ikusiz, pentsa genezake haietan aitzitik **eohan* > **ewhan* gertatu zela, eta ondoren *wh* > *f* (Hualde, 1997: 422-423, eta Lakarra, 2009a §VI.; cfr. *(g)au-hari* > *afari* Mitxelena, 1977 [1961]) gerta zitezkeela (*e*- galtzea azaldu beharko litzateke, dena den). Patxi Salaberrik diostanez, hala ere, *joan* > *juan* > *f(u)an* izan bide zitekeen, nola toponimiako *Jaun Done* > *Juande(ne)* > *Fande*.

FHV berrirakurritz ikusi dut Mitxelenak *juan* [xwan] > *f(u)an* azaltzen duela (nahiz eta ez zaidan hain garbi geratu aldaera hori duten hizkera guztietan [x] hotsa erabiltzen den aditz zaharretako *j*-ahoskatzean), eta ondoko aipuak azalpen hori oso egiantzeko egiten duela esango nuke: «El paso de [x] a [f] se ha dado

Geroago, jada mendebaldeko *emon* aldaera sortua zelarik¹³, haren «fakti-tibozko» forma eraiki zuketzen hitzunez, *iramo(n)*, Landucciok ‘botar (la pelota), derribar, esparcir’ itzultzen duena eta Lazarragaren eskuizkribuan ‘jaurti, kolpatu’ adierak hartzen dituen.

4. *DON-EN ONDORENGOAK

Orain arte esandakoak taularatuz (Lakarraren beste **e-don*... etimologia-dun hitzekin batera), hauxe izan liteke **don*-en orain arteko familia osoa¹⁴:

	* <i>don</i> ^{14bis}			
	<i>e-</i>	<i>e-da-</i>	<i>e-ra-</i>	<i>e-da-ra-</i>
-Ø	* <i>e-don</i> > <i>jo</i> ¹⁵	* <i>e-da-don</i> > <i>eman</i> [<i>eman</i> > <i>emon</i>]	* <i>e-ra-don</i> > <i>herro</i> , <i>errun</i> [* <i>e-ra-mon</i> > <i>iramo(n)</i>]	* <i>e-da-ra-don</i> > * <i>arran</i> - → <i>arrain</i> , <i>arrano</i>
-i	* <i>e-don-i</i> > <i>hodei</i>	* <i>e-da-don-tz-i</i> > <i>ja(u)ntzi</i>	<i>e-ra-don-tz-i</i> > <i>erosi</i> ¹⁷	
-tz-i ¹⁶	<i>e-don-tz-i</i> > <i>josi</i>			
-gi ¹⁸	* <i>e-don-gi</i> > <i>idoki</i>		* <i>e-ra-don-gi</i> > <i>iradoki</i>	* <i>e-da-ra-don-gi</i> > <i>jarrugi</i> ¹⁹

también ocasionalmente ante *u* silábica: a.-nav. Oyarzun *fuera* ‘inclinación’, que tiene normalmente tres sílabas, de *joera*; vizc. Oñate *fusturi* ‘trueno’, de (vizc.) *justuri*. (Mitzelena, 1977 [1961]: §9.4.).

¹³ Ekialderago dokumentaturiko, baina inoiz orokor izandako, *demola* ‘eman diezaiola’ gisako aditzien analogiaz, edota aditz-izenaren forma anbiguotik sortua (cfr. §1 eta §2, *igo(n)/igan* moduko aldaerez): *eman* → *emaiten*, eta *jaio*, *jo* → *jaiaiten*, *jaiten*, beraz *emaiten* → *emon*.

Egia da hipotesi honi «gainkostua» dakarkiotela Oihenarten *emu-* eta Erronkariko zein Nafarroa Behereko *emon* aldaerek (OEH, s.v.), baina pentsa liteke haietan ere aipatu arrazoiengatik sortu ziratekeela.

¹⁴ **don-i* > *lohi* (cfr. Mitxelena, 1977 [1961]: 108, 26. oin-oh., 257-8, Lakarra, 2006b: 594) eta **hur-don-i* > (h)*idoi* (Lakarra, 2009a: 570) falta dira taulan, **e-* aurrizkirik gabeak izanik ez baititut sartu.

^{14bis} Artikulua berrirakurtzean konturatu naiz *jo* (< **e-don*) eta *eman* (< **e-da-don*) biak darabiltzagula euskaraz erdarazko ‘dar por...’ adierazteko, eta *eman* bera ‘(su)pongamos que...’ esamoldean (cfr. gorago **don* erroaren jatorrizko esanahiaz adierazitakoa); halaber gaztelaniaz *dar* aditzak ‘jo’ esanahia har dezake. Hori guztia, egiazki, aitzineuskara zaharraz baino gehiago, aditzon aldaketa semantikoaren ohiko bideez (unibertsalez?) eta egungo forma zein adieren berankortasun erlatiboaz mintzo zaigu.

¹⁵ Azken batean, *eraio* ez litzateke berrikuntza moderno eta dialektal bat baizik, hori bai, *jo* gipuzkeraz ere [jo] ahoskatzen zen garaikoa, gutxienez (ik. 5. oin-oh.).

¹⁶ Jatorrizko *tz-k* (*t/s*) eman izanaz, Mitxelenak aspaldi azaldu zigunez,

«Hay vacilación en varios participios y radicales verbales: com. *jaun(t)zi*, *jantzi* ‘vestido, revestido’ (Leiz. *iaunçi*), pero sul. *jauntsi*, rad. *jaunts*; a.-nav. guip. vizc. *erantsi* ‘añadido, pegado, adherido’, vizc. *eraatsi*, pero mer. *eranzi* (*vyaquin erançi* ‘pegar con pez’), ms. Oñate *erantzi*, *eraazten*.

Se diría que se debe a la frecuencia con que *n* + sibilante queda ante oclusiva en el sustantivo verbal: *eranzten*, *jaunzten*. A esto hay que atribuir también los casos de variantes con y sin *n*. Es verosímil que el cambio se haya producido en la dirección *-nz-* + oclusiva > *-ns-* y a veces *-s-*, en sustantivos verbales y otros derivados: guip. vizc. *jazte*, *jazkera*, lab. *jauzkura*, frente a *jaunzte*, *jaunzkera*, *jaunzkura*, han mantenido probablemente *z* gracias a la analogía. (Mitzelena, 1977 [1961]: 285).

¹⁷ Joseba Lakarrak ahoz esana.

¹⁸ -*gi* aldaera paratu dut proto-forma guztietan hori bide delako partizipio batzuetako atzizkiaren formarik zaharrena (Trask, 1995: 231), baina *idoki* bezalakoean ulertu behar da zuzenean -*ki* alomorfo berria gehitu zaiola aditzoinari, eta ez *g* testuinguru horretan ahoskabatu dela; cfr. Lazarragaren *idogi*, eta Oihenarten *itoite-* zein Haranbururen *edoite-* aldaerak (OEH, s.v.).

¹⁹ Cfr. Lakarra (2010: 60). Hori horrela bada, baina, gorago erabilitako balentziaren argudioa kolokan geratuko litzateke, zeren eta **don-i* (**din*-en aurrean) iragankortasuna egotzi badiot ere, *jarrugi*-ren erabilera zahar argi bakarrak kontrakoa erakusten digu: «*Gextoto oi danari bildurra jarraigi ta kaltea jarrugi*. «Al que mal habita el miedo le sigue y el daño encuentra». RS, 341 (OEH s.v.).

5. JAINKO-REN JITE EDO JAISTE-AZ

Aurreko ataletan landutako erroa alde batera utzi eta hasieran azalduko **din* delakoaz arituko naiz ondoko lerrootan. Erro hartatik abiatuz Joseba Lakarrak hainbat aditz zein izen berreraiki du (2006a, 2008a), lan honen sarrreran aipatutakoez gain *ediren* (< **e-ra-din*), *eraiki* (< **e-ra-din-gi*), *jaiki* (< **e-da-din-gi*), *jarrain* eta *errain* (< **e-da-ra-din*) ere baditugu **din*-en familian (ik., besteak beste, Lakarra, 2008a: 458ko taula).

Zerrenda horretatik kanpo, halaber, *jaitsi* genuke. Hasiera batean Lakarrak *jatsi* aldaera zaharragotzat zuela zirudien arren²⁰, azken artikuluetan *jaitsi*-ren alde egin du²¹ eta honen etimologia ere aldatuz joan da: Lakarra (2008a) lanean **dits* erroaren eratorrietako bat zen harentzat (< **e-da-dits-i*; orobat *eraitsi* < **e-ra-dits-i*), baina geroago **din*-ekin lotu beharra adierazi du: «**dits* > *jaitsi* ‘descender’ [posiblemente sea mejor analizarlo como **edin-tz-te* > **edi(n)-s-te-*]»²² (Lakarra, 2008b: 321).

Hortaz *jaitsi* (eta honekin batera *eraitsi*) ere **din* erroaren ondorengoetako bat litzateke. Zehazki *jaitsi* eta *jaiki* oinarri beraren (**jain-*) gainean osatuak lirateke, aurrizki ezberdinez luzaturik. Eta hain zuzen ere oinarri horretan eraikia uste dut *jainko* hitza ere: < **e-da-din-ko*.

Hitz honen **din* erroarekiko erlazio semantikoa nahiko argi dagoela deritzot, nahiz eta zaila den jatorrian zehazki zein adiera zukeen zehaztea, hots, gugana *etorria* (ala *igorria*?), lurrera *jaitsia* (ala lurretik, lurreko edo lurpeko dibinitate gisa, *jaikia*?). Formari dagokionez, berriz, besterik ezin liteke atera /*jainko*/ hots segidatik. Arazo bakarra, itxuraz, atzizkiko herskariaren ahoskabetasuna izan liteke, sudurkariaren ondoan egonagatik hizkera gehienetan hala mantendu delako (baina badira *jingo* eta *jaingo* aldaerak ere), zuberera eta erronkaria ez besteetan esperoko genukeenaren aurka. Dena den, erlijioarekin loturiko hitza izanik, ez bide da hain harritzekoa forma arkaikoagoa mantentzea (nahiz eta hor ditugun *je(i)nko* eta *j-/x-inko* aldaerak ere). Hala eta guztiz ere, erka bekio *SESENCO* inskripzio «akitaniarra» (Soria aldean aurkitua; Gorrotxategi, 2007: 633), egungo *zezenko* bide dena, non ikusten baita herskaria ahoskabe mantendu dela egun arte.

6. JIN-EN JITEAZ

Bada, behin *jainko* < **jain-* < **e-da-din(-)* bilakaera finkaturik, eta hitz horrek dituen aldaerak ikusirik (*jainko*, *jeinko*, *jenko*, *jinko*), zer esan diezaguke horrek *jin*-en etimologiaz?

Orain arte Joseba Lakarrak (bokalismoari dagokionez Mitxelenarekin bat etorriaz) proposaturikoa onartu da, hau da, *jin*-en jatorria **edin* dela, *jen* aldaera, Mitxelenak hasieran jatorrizkotzat izan zezakeena, berriagotzat joaz (ik. Lakarra, 2006a: 571 eta 573, dagozkien oin-oharrekin). Baina, arestian

²⁰ Hauze zioen Lakarrak (2005: 458) hitzez hitz: «**dats*, B' *adats* «melen», B' *lats* «pequeño torrente», B''' *jats-i* «bajar» (< **e-dats*)».

²¹ Orain, berriz, jatorrian bi aditz ezberdin (nahiz eta formaz eta esanahiz hurbilekoak) izan zitezkeela deritzo (Joseba Lakarraren ahozko komunikazioa; eta cfr. Lakarra, 2008a: 457-458, non taula berean biak ematen dituen). Bestetik, *arrats* ere gehi diezaiokegu **dats*-en familiari (*lats*, *adats*, *jatsi*) < **e-da-ra-dats* batetik (J. Lakarra ere uste hori berori adierazi dit).

²² Hemen, noski, *e-da-din-tz-te* ulertu behar dugu, **eda* > *ja*- bilakaera ezagunaren beste adibide bat.

(§1 eta 3. oin-oh.) aipatu dugu *jin* bide horretatik azaltzeko dagoen arazoa (**ein* > *(*i*)*in* > *jin* bilakaeraren berezitasuna), *jen* aldaera (eta *jein*, *OEĤk* baitakar) kontuan har bageneza izango ez genukeena, ene ustez. Eta ez hori bakarrik, baditugu *jeite* aditz-izenaren lekukotasunak, bai eta *jeite* izen gisa fosilduaren arrastoa Lapurdin eta goi-nafarrerazko hizkeraren batean (besteak beste ‘tendencia natural’ eta ‘origen’ adierak dituen *OEĤ*ren arabera)²³, hain zuzen ere *jin* aditzaren lekukotasunik ez den eremuan.

Jen batetik, ordea, **eden* berreraiki genezake (eta hau ere zailtasun fonetikoez, hitz hasieran **ee-* > *je-* ez baita beste inon gertatzen), eta semantikoki ez dator ondo, Lakarrak dagoeneko eman baitio erabilera aditz horri, egungo *eden* (cfr. *atseden*) eta *eten* azaltzeko (2008a: 475-479) **den* erroari ‘bukatu’ zentzua egotziz.

Bada, puntu honen hasieran zerrendaturiko *jainko*-ren aldaerak *jin*-ene-kin alderatuz, nahiz eta hedadura eta banaketa geografiko berberak ez izan, *-ai-*: *-ei-*: *-e-*: *-i-* bokalismoak topatzen ditugu bietan, salbu eta *-ai-*, *jin*-en kasuan. Badirudi, gainera, *jainko*-ko diptongoaren asimilazio eta bakuntzea ekialdetik mendebalerantz zabaltu dela (nahiz eta aldaera diptongodunak zubereraz ere badiren, aipatu hizkera erlijiosoaren gordetzailetasunak eraginda ziurrenik) eta, beraz, pentsatuko bagenu *jin*-ekin ere hala gertatu dela (indar handiagoz, Iparralde osoan ia aldaera bakarra baita, baina bestelakoak Lapurdin eta goi-nafarreran aurkitzen dira, mendebalderago alegia), aditz honen aurreko forma dokumentatu gabea (eta gaur arte iraun balu hegoaldean izango bide lukeena) honako hau litzatekeela ondoriozta genezake: **jain*. Horrela ez da arazorik hasierako **j-* azaltzeko, halako gehienetan (edo hobeto esanda guztietan, *jo* eta *josi* kenduta) **e-da-* batetik baitator.

Honenbestez, bi taula paratuko ditut. Lehenengoan *jainko*, *jin*, *jaitsi* eta *jai-ki* aditzen aldaerak ipini ditut –banaketa dialektala eta hedadura zehaztu gabe, behin ere ez baitatortz guztiz bat–, ikus dadin alde batetik zein bilakaera ezberdina izan ditzaketen hizkera batetik bestera (baina ezein aldaketa eremu jakin bati ezin egotz dakiokela) eta, batez ere, zein konplexuak eta isoglosa ezberdinekoak diren aldaerak eta berorien arteko harreman genetiko edo etimologikoa:

<i>janko</i>	:	<i>jainko</i>	:	<i>jeinko</i>	:	<i>jenkol/jinko</i>
<i>jatsi</i>	:	<i>jaitsi</i>	:	<i>jeitsi</i>	:	<i>jetsi</i>
<i>jagi</i>	:	<i>jaiki</i>	:	<i>jeiki</i>	:	<i>jekil/jiki</i>
		* <i>jain</i>	:	<i>jein</i>	:	<i>jen/jin</i>

Bigarren taulan, berriz, **din* erroatik datozen zenbait aditz, Lakarraren (2008a eta 2008b) lanetarik hartuak gehienak, hemengo proposamena gehituaz:

	* <i>din</i>			
	<i>e</i> ²⁴	<i>e-da-</i>	<i>e-ra-</i>	<i>e-da-ra-</i>
-Ø		* <i>e-da-din</i> > * <i>jain</i> > <i>jin</i>	* <i>e-ra-din</i> > <i>ediren</i>	<i>e-da-ra-din</i> > <i>jarraïn</i>
-tz-i		* <i>e-da-din-tz-i</i> > <i>jaitsi</i>	* <i>e-ra-din-tz-i</i> > <i>eraitsi</i>	
-gi		* <i>e-da-din-gi</i> > <i>jaiki</i>	* <i>e-ra-din-gi</i> > <i>eraiki</i>	* <i>e-da-ra-din-gi</i> > <i>jarraiki</i>

²³ Joseba Lakarrak ohartarazi didanez, *eite* hitzaren aldaera ez ote den pentsa genezake (nahiz eta adierak ez datozen guztiz bat), baina ene ustez gurutzaketa modura azal liteke gehienez ere (*jite* + *eite* = *jeite*), eta ez *eite* > *jeite* bilakabide gisa. Hortaz, hemen aurkezten den hipotesiaren aldeko lekukotasun bat galduko litzateke, edo beharbada ahuldu, baina kontrako frogak ere ez litzateke.

²⁴ Gauza berezia dateke **din* erroarekin *e-* aurizki hutsarekin sorturiko aditz bakar bat ere ez berreraikitzea. Dena den, behin-behineko taula da hau eta, gainera, baliteke **edin* inoiz existitu izana

8. BIBLIOGRAFIA

- GORROTXATEGI, J., 2007, «Onomástica de origen vasco-aquitano en Hispania y el Imperio Romano», in M. Mayer, G. Baratta & A. Guzmán (arg.), *Acta XII Congressus Internationalis Epigraphiae Graecae et Latinae* [Monografies de la Secció Històrico-Arqueològica X], Bartzelona, Institut d'Estudis Catalans, U. de Barcelona, U. Autònoma de Barcelona, 629-634.
- HUALDE, J. I., 1997, «Aitzineuskararen leherkariak», *ASJU*, 31.2, 411-424.
- HUALDE, J. I., LAKARRA, J. A. & TRASK, R. L. (arg.), 1995, *Towards a History of the Basque Language*, Amsterdam/Philadelphia, John Benjamins.
- LAKARRA, J. A., 1995, «Reconstructing the Pre-Proto-Basque Root», in Hualde *et al.*, 1995, 189-206.
- , 1998, «Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa», *Uztaro*, 25, 47-110.
- , 2004, «Etimología y reconstrucción en el campo vasco», in E. Ridruejo (arg.), *Las otras lenguas de España*, Valladolid, 41-116.
- , 2005, «Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto) vasco», *Palaeohispanica*, 5, 407-470.
- , 2006a, «Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco», in J. A. Lakarra & J. I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask*, *ASJU*, 40.1/2, Bilbo, UPV/EHU, 561-621.
- , 2006b, «*Jaun* eta *jabe*, *jaio* eta *herio*, *jin* eta *joan* ...: etimologiaz eta aditz morfologia zaharraz (Hitz hasieraz II)», in B. Fernández & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, UPV/EHU, 575-611.
- , 2008a, «Aitzineuskararen gramatizarantz malkar eta osinetan zehar», in X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagari Omenaldia*, *ASJU*-ren gehigarriak LI, Bilbo, UPV/EHU, 451-490.
- , 2008b, «Temas para un prólogo: forma canónica, tipología holística diacrónica y reconstrucción del protovasco», *Oihenart*, 23, 277-347.
- , 2009a, «Adabakiak /h/-aren balio etimologikoz», *ASJU*, 43, 565-596.
- , 2009b, «Forma canónica y cambios en la forma canónica de la lengua vasca: hacia los orígenes del bisilabismo», *Palaeohispanica*, 9, 557-609.
- , 2010, «Aitzineuskararen berreraiketaz: egindakoaz eta eginkizunez», *Euskera*, 2009/54-1, 17-98.
- , 2011, «Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio», *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*, 113, 5-114.
- MITXELENA, K., 1977 [1961], *Fonética histórica vasca*, *ASJU*-ren gehigarriak IV, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- , 1987, *Orotariko Euskal Hiztegia-Diccionario general vasco*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- TRASK, R. L., 1995, «On the History of the Non-Finite Verb Forms in Basque», in Hualde *et al.*, 1995, 207-234.

e-da-din* formarekin lehian (cfr. *ilki* < **e-dul-gi* eta *jalgi* < **e-da-dul-gi*), eta azken horrek irautea forma jokaturagabeetan (> *jin*, *jite*; baina jokaturik *da-din*); cfr., besteak beste, *jario/erio(n)* < **e-da-lin-ol*/e-lin-ol* < *da-rio*).

LABURPENA

Etimologiak ate-joka: din-don... (jo eta josi; eman eta iramo(n); jin eta jainko)
 Artikulu honetan aitzineuskarako bi erro monosilabiko dira ardatz: **din* ‘eto-
 rri’ eta **don* ‘ezarri’; zehazki, erro horietarik eratorritako hitzak (hitz-familiak)
 aztertu ditut, etimologia berriak proposatuz eta horiek Joseba Lakarra iker-
 tzaileak lehenagotik berreraikitakoekin erkatuz, harreman formal zein seman-
 tikoak argitu nahian. Oro har, nabarmendu nahi izan dut ezen honelako
 lanetan hitzen aldaerak eta aldaketa fonetikoak zuhurki bezain xehe erabili
 behar direla, ezein forma *a priori* baztertu gabarik, eta halaber adieren azter-
 ketak hitzen arteko harremanak frogatzen, edo gutxienez oinarritzen, lagun
 gaitzakeela.

Gako hitzak: aitzineuskara; etimologia; aditza, erro monosilabikoa; hitz-fa-
 miliak.

RESUMEN

*Las etimologías llaman a la puerta: din-don... (jo ‘pegar’ y josi ‘coser’; eman
 ‘dar’ e iramo(n) ‘lanzar’; jin ‘venir’ y jainko ‘dios’)*

Las raíces monosilábicas del protovasco **din* ‘venir’ y **don* ‘poner’ son el eje
 del presente artículo; concretamente, analizo palabras derivadas de dichas raíces
 (las familias), proponiendo nuevas etimologías y comparándolas con re-
 construcciones anteriores del investigador Joseba Lakarra, a fin de establecer
 sus relaciones formales y semánticas. He querido subrayar, en general, tanto
 la necesidad de emplear en este tipo de trabajos las formas dialectales y los
 cambios fonéticos de una manera prudente y minuciosa, sin descartar ningun-
 a variante *a priori*, como la utilidad del análisis del significado para poder
 demostrar, o al menos apoyar, las posibles relaciones entre palabras.

Palabras clave: protovasco; etimología; verbo, raíz monosilábica; familias de
 palabras.

RÉSUMÉ

*Les étymologies frappent à la porte: din-don... (jo ‘frapper’ et josi ‘coudre’; eman
 ‘donner’ et iramo(n) ‘lancer’; jin ‘venir’ et jainko ‘dieu’)*

Les racines monosyllabiques du proto-basque **din* ‘venir’ et **don* ‘mettre’ sont
 l’axe de cet article; j’analyse, spécifiquement, des mots dérivés de ces racines
 (les familles), en proposant des nouvelles étymologies et en les comparant
 avec des reconstitutions précédentes du chercheur Joseba Lakarra, afin d’éta-
 blir ses relations formelles et sémantiques. J’ai voulu souligner, en général, la
 nécessité d’employer dans ce type de travaux les formes dialectales et les pro-
 cessus de changement phonétique avec attention et précision, sans exclure au-
 cune variante *a priori*, ainsi que l’utilité de l’analyse du sens, pour pouvoir
 prouver, ou au moins soutenir, les relations possibles entre des mots.

Mots-clé: proto-basque; étymologie; verbe; racine monosyllabique; familles
 de mots.

ABSTRACT

*Etymologies knocking at the door: din-don... (jo ‘to strike’ and josi ‘to sew’; eman
 ‘to give’ and iramo(n) ‘to throw’; jin ‘come’ and jainko ‘god’)*

Two monosyllabic roots of the Proto-Basque language are the core of this pa-
 per: **din* ‘come’ and **don* ‘put’; precisely, I analyse the words (word-families)
 derived from those roots, suggesting new etymologies and comparing them
 with the ones that the researcher Joseba Lakarra has already reconstructed, in

order to clarify their formal and semantic relationships. Broadly speaking, I wanted to underline that in such works as this one it is important to use carefully and accurately both the dialectal forms and the phonetic change processes, without excluding any variant *a priori*, and also that a meaning analysis can help us to prove, or at least to support, the possible relationships between words.

Keywords: Proto-Basque; etymology; verb; monosyllabic root; word families.